

KONTROL MOZIOA

GALDEKETA GAUZATZEKO KONPROMISOA DELA ETA

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko ekainaren 19an, Pertsonen Batzordean aztertutako “2017an zezen-galdeketa gauzatze konpromisoa” interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2017ko apirileko udalbatzarrean, “8.986 donostiarrek eskatutako kontsulta” mozioaren ondotik, Donostiako Udalbatzak konpromiso hau gehiengoz hartu zuen:

Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Udal-gobernuari eta alkateari, ia 9.000 donostiarrek egindako eskaerari erantzunez, azter eta martxan jar dezala, 2017a amaitu baino lehen, udal instalazioak zezenketetarako erabiltzearen inguruan iritzia-jasotze legezko bat, 2012ko Zestoako eredia, 2017ko Arroka eredia edo bestelakoa izan daitekeena.

Aldiz, 2017ko ekainaren 6ko Toki Gobernu Batzordean, iritzi-jasotze edo galdeketarekin harremana duten bi kontraturen uko-egite edo errenuntzia onartu dira “interes publiko faltagatik”:

1. *UDAL BALIABIDE PUBLIKOAK ZEZENKETEI EMATEKO HERRI KONTSULTAREKIN ZERIKUSIA DUEN DOKUMENTAZIOA INPRIMATZEKO, MANIPULATZEKO ETA POSTAZ IGORTZEKO ZERBITZU-PRESTAZIOAREN kontratazioa.*
2. *BOTO ELEKTRONIKOKO PLATAFORMA BATEN BIDEZ UDALAREN BALIABIDE PUBLIKOAK ZEZENKETETARA BIDERATZEARI BURUZKO HERRI KONTSULTA BAT EGIN AHAL IZATEKO ZERBITZUEN kontratazioa.*

Ekainaren 19ko batzordeetan, alkateari gaiaz galdetuta, erantzun zitzaigun ez ziola uko egiten galdeketa egiteari udal ekipamenduak zezenketetarako baliatzearen inguruan, baina oraindik ez zutela ereduaren artean hausnartzen amaitu eta, edozein kasutan, Zestoako eredia baztertzen zutela. Horrez gain, ez zitzaigun hurrengo inongo pausoren ez data zehatzen berri eman.

2017ko apirileko udalbatzarrean, gehiengoz, urtea amaitu aurretik galdeketa edo iritzi-jasotzea egiteko konpromisoa hartu zen eta, horrenbestez, dagoeneko deialdia nahiz dagozkion pauso administratiboak gauzatzen aritu beharko luke Udalak. Hala ere, batetik, gaur gaurkoz eman den pauso administratibo bakarra aurreko deialdiarekin lotutako galdeketaren bi lizitazio-prozesu bertan-behera uztea izan da eta, bestetik, argitaratu

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

denaren arabera, aurtengo Aste Nagusian ere Ilunbeko udal ekipamenduan zezenketak izango dira.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio alkateari, oro har, demokrazia zuzenarekiko eta bereziki ia 9.000 donostiarrekiko duen konpromisoa, hitzekin baino gehiago, ekintzekin demostra dezala eta, horretarako, definitu dezala lehenbailehen udal-ekipamendu eta zezenketen inguruko iritzi-jasotzea egiteko eredu legal bat eta dagozkion lizitazio-prozesuak abia ditzala 2017a amaitu baino lehen gauza dadin.

Donostian, 2017ko ekainaren 22an

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia